

> **1. Sarrera**
Introducción



Sarrera Osasunari eta bere determinatzaileei buruzko informazioa oso baliagarria da osasun-politiken esparruan erabakiak hartzea bideratzeko, bai eta osasun-zerbitzuak planifikatu eta kudeatzeko ere. EAEko Osasun Inkesta (EAEOI) Euskadiko osasunari buruzko informazio-sistemaren funtsezko parte da; Euskadiko osasun-sistemaren esparruan erabakiak hartzera bultzatzen du eta horretarako informazioa ematen du. EAEOIk osasunaren izaera multidimentsionala islatzen du, pertsonen beren osasunarekiko duten ikuspegia zein den erakusten digu, eta EAEn bizi diren pertsona ez-instituzionalizatu guztiak hartzen ditu (osasun-zerbitzuak erabili ala ez). Halaber, osasunaren determinatzaileen aukera zabala aztertzen du (enpleguko eta laneko baldintzak, etxebizitzaren ingurua, faktore psikosozialak, zainketa-lanak eta etxeko lanak, egoera sozioekonomikoa, osasunarekin lotutako portaerak...), eta osasun- eta zainketa-zerbitzuen erabilera zein den adierazten digu. Gainera, osasun-erloko gizarte-desberdintasunak monitorizatzeko tresna nagusia da EAEOI.

Osasunari eta osasun-zerbitzuei lotutako erabakiak hartzeko, arreta-maila ezberdinen inguruko eta esparru geografikoen arabera informazioa beharrezkoa da. Azken urteotan, osasun-arreta Erakunde Sanitario Integratu (ESI) gisa mugatutako esparru geografikoetan integratzeko prozesua aurrera eramaten ari da Osakidetza. ESlek eremu geografiko bateko herritarrei zuzendutako lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko zerbitzuak hartzen dituzte, beste erakunde batzuetako gizarte-zerbitzuekin koordinatuta. Gainera, ESI horietan, banakako osasun-arreta (Osakidetzaarena) eta populazio-mailako zuzendutako osasun-arreta (osasun publikoaren zerbitzuak) bateratzen dira.

EAEOIn beste argitalpen batzuek EAEko herritar guztiak hartzen dituzte oinarri. Dokumentu honen helburua 2013ko EAEOIn adierazle nagusiak ESI bakoitzeko deskribatzea da. Osasunaren eta bere determinatzaileen ikuspegi konparatiboa eskaintzen da, esparru geografiko horien artean, eta 2007tik 2013ra bitartean ESI bakoitzean gertatutako aldaketak deskribatzen dira. 2. kapituluan, 3. kapituluan deskribatutako emaitzak irakurri eta interpretatzeko gidaliburua eskaintzen da. Eranskinetan hurrengoak aurkituko ditugu: ESI bakoitzaren mugaketa geografikoa, erroldaren adierazle sozioekonomiko eta demografikoen banaketa, EAEOIn adierazleen definizioa eta azterketa estatistikoaren metodologia.

Introducción La información sobre la salud y sus determinantes es de gran valor para orientar la toma de decisiones en políticas de salud, y para la planificación y gestión de los servicios de salud. La Encuesta de Salud de la CAPV (ESCAV), como parte fundamental del sistema de información de salud de Euskadi, nutre e informa la toma de decisiones en el ámbito del Sistema de Salud de Euskadi. La ESCAV refleja la naturaleza multidimensional de la salud, ofrece la visión que las personas tienen de su propia salud, se refiere a todas las personas no institucionalizadas residentes en la CAPV (hayan o no utilizado los servicios de salud), estudia un amplio abanico de determinantes de la salud (condiciones de empleo y de trabajo, el entorno residencial, los factores psicosociales, el trabajo de cuidados y doméstico, la posición socioeconómica, las conductas relacionadas con la salud, etc.), y valora el uso de los servicios de salud y de cuidados. Además, la ESCAV es el principal instrumento para monitorizar las desigualdades sociales en salud.

La toma de decisiones en lo relativo a la salud y los servicios de salud precisa información a distintos niveles de atención y por ámbitos geográficos. En los últimos años, el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza está siguiendo un proceso de integración de la atención sanitaria en ámbitos geográficos delimitados como Organizaciones Sanitarias Integradas (OSI). Las OSI integran los servicios de atención primaria y especializada dirigidos a la población de un área geográfica, en coordinación con los servicios sociales de otras instituciones. Además, en estas OSI se integra la atención sanitaria individual, de Osakidetza, con la poblacional, de los servicios de salud pública.

Otras publicaciones de la ESCAV se refieren al conjunto de la población de la CAPV. El objetivo de este documento es describir los principales indicadores de la ESCAV de 2013 por OSI. Se ofrece una visión comparativa de la salud y sus determinantes entre estos ámbitos geográficos, y se describe el cambio ocurrido en cada OSI entre los años 2007 y 2013. En el capítulo 2 se ofrece una guía de lectura e interpretación de los resultados descritos en el capítulo 3. En los Anexos puede encontrarse la delimitación geográfica de cada OSI, la distribución de indicadores socioeconómicos y demográficos censales, la definición de los indicadores de la ESCAV, y la metodología del análisis estadístico.

➤ **2. Emaitzak irakurri eta interpretatzeko gidaliburua**

Guía de lectura e interpretación de los resultados



Emaitzak irakurri eta interpretatzeko gidaliburua Emaitzei buruzko atalean bi orrialde eskaintzen zaizkio adierazle bakoitzari eta sexu bakoitzari.

Lehenengo orrialdean (ikus adibidea, 1. irudian), adierazlearen 2013. urteko balioa deskribatzen da, hiru irudi baliatuta. Goi-ezkerrean kokatutako irudian, ESI bakoitzeko prebalentzia adierazten da, aldagai dikotomikoen kasuan, edo batez bestekoa, tarte-aldagaien kasuan. Lerro gorriak EAE osoari dagokion balioa adierazten du. Emaitza horiek berberak goi-eskuineko mapan beha daitezke. Kasu horretan, adierazlearen balioa kintiletan sailkatu da, eta adierazlearen balioa handitzen den heinean, kolorearen tonua iluntzen da. ESI bakoitzeko herritarren adin-egituran dauden diferentziak kontuan hartzeko helburuarekin, adinaren arabera estandarizatuta aurkezten dira adierazleak, prebalentziaren kasuan, edo adinaren arabera doituak, batez bestekoen kasuan. Xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus 4.4. eranskina, metodoei buruzkoa.

Behealdean kokatutako irudiak bi grafiko ditu: prebalentziaren arrazoia (RR) nahiz batez bestekoen arteko diferentzia (BD) ikus ditzakegu bertan, bai eta horiei dagozkien % 95eko konfiantza-tarteak ere. Ezkerreko grafikoak ESI bakoitzaren balioa EAE osoan lortutakoarekin alderatzen du; eskuinekoan, ESI bakoitza emaitzarik onenak lortzen dituen ESIarekin konparatu da, hau da, adierazle positiboetan baliorik handienak (osasunari lotutako bizi-kalitatea, esaterako) edota adierazle negatiboetan, baliorik txikienak (adibidez, obesitatea) erregistratu dituenarekin. Lerro gorriak erreferentzia-balioa adierazten du (EAE edo baliorik hoberena duen ESI, kasuaren arabera); hala, baliorik handienak leerroaren eskuinera daude, eta txikienak, ezkerrera. ESI bakoitzarentzat, RR edo BDaren balio zehatz bakoitza errobo baten bidez adierazten da; barrek % 95eko konfiantza-tartea erakusten dute. Diferentziak estatistikaren aldetik esanguratsuak izango dira konfiantza-tarteko balioek erreferentziakoa barnean hartzen ez dutenean. Hala ere, kontuan hartu behar da kalkuluen zehaztasuna eta estatistikaren aldetik esanguratsuak diren diferentziak aurkitzeko probabilitatea laginaren tamainaren mende daudela, besteak beste. Horrelaxe, konfiantza-tarteko balio gehienek erreferentzia-balioa barne hartzen ez dutenean, iradokitzen da diferentziak benetakoak izan daitezkeela, eta ez ausazkoak.

Guía de lectura e interpretación de los resultados En la sección de Resultados se incluyen dos páginas para cada uno de los indicadores y para cada sexo.

En la primera página (ver ejemplo, en Figura 1), con la ayuda de tres figuras, se describe el valor del indicador para el año 2013. En la figura situada en la parte superior izquierda se muestra para cada OSI la prevalencia, en el caso de las variables dicotómicas, o la media, para las variables de intervalo. La línea roja señala el valor correspondiente al conjunto de la CAPV. Estos mismos resultados son representados en el mapa de la parte superior derecha. En este caso, el valor del indicador se ha clasificado en quintiles, y el tono del color se oscurece al aumentar el valor del indicador. Con el fin de tener en cuenta las diferencias en la estructura de edad de la población de cada OSI, los indicadores se representan estandarizados por edad, en el caso de la prevalencia, o ajustados por edad, en el caso de las medias. Para más detalles, véase el Anexo 4.4 de Métodos.

La figura situada en la parte inferior contiene dos gráficos que muestran la razón de prevalencia (RR) o la diferencia de medias (DM), y sus correspondientes intervalos de confianza del 95%. En el gráfico de la izquierda se compara el valor de cada OSI con el del conjunto de la CAPV; en el de la derecha se compara cada OSI con aquella que tenga los resultados más favorables, es decir con mayor valor para los indicadores positivos (como la calidad de vida relacionada con la salud) o con menor valor para los negativos (por ejemplo, la obesidad). La línea roja señala el valor de referencia (la CAPV o la OSI con mejor valor, según el caso), de manera que los valores mayores se sitúan a su derecha, y los menores a su izquierda. Para cada OSI, el valor puntual de la RR o la DM se representa por un rombo; las barras indican el intervalo de confianza del 95%. Se consideran diferencias estadísticamente significativas cuando los valores del intervalo de confianza no incluyen el de referencia. Sin embargo, es necesario tener en cuenta que la precisión de las estimaciones y la probabilidad de encontrar diferencias estadísticamente significativas dependen, entre otros factores, del tamaño muestral. De ahí que, cuando la mayor parte de los valores del intervalo de confianza no incluyan el valor de referencia, se sugiera que las diferencias probablemente sean reales y no debidas al azar.

1. irudia. Adierazlearen emaitzei buruzko lehenengo orrialdeko adibidea, 2013. urteko balioak deskribatzen dituena.





Figura 1. Ejemplo de la primera página de los resultados del indicador, que describe los valores para el año 2013



Bigarren orrialdean 2007. eta 2013. urteen artean adierazlearen balioak izandako aldaketa deskribatzen da (2. irudia). Ezkerreko irudian prebalentzia edo adierazlearen balioaren batez bestekoa ageri dira, ESI eta urte bakoitzeko. Eskuineko irudian, 2013ko balioa 2007koarekin alderatu ostean lortutako RR edo BD adierazten dira. Erreferentziak zeto gorriaren eskuinera (ezkerrera) dauden RR edo BDen balioek ESI horretan, adierazlearen balioa areagotu (murriztu) dela erakusten dute.

En la segunda página se describe el cambio en el valor del indicador entre los años 2007 y 2013. (Figura 2). En la figura de la izquierda se muestran, para cada OSI y cada año, la prevalencia o la media del valor del indicador. En la figura de la derecha se muestran la RR o la DM resultante de comparar el valor de 2013 con el de 2007. Aquellos valores de la RR o la DM situados a la derecha (izquierda) de la línea roja de referencia indican que en esa OSI se ha producido un aumento (disminución) en el valor del indicador.

Konfiantza-tarteak kalkuluen zehaztasunaren erakusle dira, eta gorago aipatutako modu berdintsuan interpretatu daitezke: tarteko balioak balio nulua barne hartzen ez badu, adierazlean gertatutako aldaketa estatistikoki esanguratsua izango da.

Los intervalos de confianza muestran la precisión de las estimaciones y pueden interpretarse de manera análoga a lo descrito más arriba: si el valor del intervalo no incluye el valor nulo, el cambio en el indicador es estadísticamente significativo.

2. irudia. Adierazlearen emaitzei buruzko bigarren orrialdeko adibidea, 2007. eta 2013. urteen artean gertatutako aldaketa deskribatzen duena.

Figura 2. Ejemplo de la segunda página de los resultados del indicador, que describe el cambio ocurrido entre 2007 y 2013

